
Ixone Sádaba. Escala 1:1

Lemoizko zentral nuklearrak zutik jarraitzen du, 1984an abian ez jartzeko agindu zutenetik. Gaur egun, eraikin handi-handi haren hondarrek abandonu eta hondamenaren zantzu gupidagabeak dituzte agerian. Hala ere, herentzia gatazkatsu bati dago lotuta, eta horrek eutsi egiten dio bere irradiazio-ahalmen osoari. Bertan bildu ziren diktadura frankistaren garaian proiektatutako makroazpiegitura baten planak, hura eraikitzearen kontra zeuden mugimendu ekologista eta erresistentzia zibileko mugimendu berriak, eta, orobat, ETaren indarkeriazko ekintzak.

1972 eta 1984 artean Basordas kalaren gainean eraiki zuten zentrala ondare iheskorra da gaur egun. Zentralaren ingurunerako sarbidea itxita dago oraindik. Landaredia esparruan hazten da, eta ezerk ezin du heda dadin galarazi, indarkeria eta borroka zibilek markatutako historiaz blaituta dagoen leku honetan. Hortaz, Lemoizko memoria historikoaren kasuan, zaila da bere hondakinak kudeatzea. Hormigoizko eraikin izugarri handi honek bere historiaren geruza guztiak ditu nahasirik, baita bere osaera hondatua ikusita oraindik irudikatu daitekeen etorkizuneko potentziala ere.

2021 eta 2024 bitartean, Ixone Sádabak (Bilbo, 1977) argazkiak atera zizkien zentralako espazioei eta haren ingurune hurbilari. Hasieran, argazki horiek balio izan zuten bertako ondare material, sinboliko eta politikoa buruzko ikerketa zabaltzeko. Lan honetan, Sádadak balio dokumentala eman zion fotografiari, kontaktu enpirikoa lortu nahi baitzuen zentral nuklearraren objektuarekin, anatomia formal konplexuarekin eta hain trinkoa izanik argazkigintzako gailu tradizional batek nekez har zezakeen objektu haren geruzekin.

Echar el olvido al futuro #1 eta #5 izenburuko bi argi-kaxak zentralaren hondakinen artean aurkitutako objektuekin bat egiten duen praktika fotografiko baten adibideak dira. Lan horiek aurrekari bat dira, gailu fotografikoa zalantzan jartzeko eta beste batez pentsatzeko, zentralak bere proxya aurkitu ahal izan dezan. Bere dimentsioak gutxitu edo murriztuko ez dituen ordezkioa. Horrela, Lemoiz Alhóndigan sartzen da, bere benetako eskalari eutsita.

Ondorioz, sekuentzia fotografiko batzuk daude, eta bata bestearen atzetik hedatzen dira zentralaren eraikinek eta haren inguruak osatutako multzoaren segmentu zabalak. Ondoz ondo doaz ikuspegiak, eta guztiek batera ezin dute lekuaren ikuspegi zehatza osatu. Izan ere, *Escala 1:1* ez da soilik euskal gatazkaren historiako objekturik polemikoenetako baten testigantza, historia horrek argazkiaren gorputzean eragin dituen lesioen berri ere ematen baitu.

Hiru artxibo-kaxa, laurogeita hamar inprimatze fotografiko, 2021-2024
Artxiboko tinta kotoi-paper gainean
40 x 50 cm bakoitza-----

2021 eta 2024 bitartean atera zituen argazkiak. Ixone Sádaba orduan hasi zen ikertzen *–Echar el olvido al futuro* izenburua hartuta–, berak agertoki politiko berri bat deitzen zuenaren definizioan sakondu nahi baitzuen. Artistak sarritan erabili du termino hori tentsioen espazio bat aipatzeko, indarkeriazko topaketak gogora ekartzen dituen benetako leku bat, eta behin eta berriz agertzen da bere lanetan, hala nola emakume kurduen espetxeei buruzko Gulala (Anfal) proiektuan.

Oraingoan, kontua da forma ematea arkeologia politikoa praktikan jartzeko objektu egoki bati, berak Lemoizko zentral nuklearrarekin identifikatu zuen objektuari. Hala, irudi horiek dira, hain zuzen, zentralera eta inguru horretara egindako lehen hurbilketa fotografikoak. Horregatik du erreportajearen estetika. Lemoizek trantsizioko objektu bat izan behar zuen, prozesu historiko bat berriz ireki ahal izateko, hormigoizko eraikin handi horretan gorpuztuta; eta, era berean, fotografiak bide eman behar zien ikerketari eta eztabaidari.

Echar el olvido al futuro #1, 2023-2024
Echar el olvido al futuro #5, 2023-2024
Argi-kaxak, neoiak, argazkiak eta hainbat material
172 x 82 x 22 cm bakoitza

Bi konposizio hauetan, Lemoizko zentral nuklearraren esparru abandonatuan aurkitutako objektuak birziklatu dira. Argia ematen dien argi-iturria ere leku berekoa da. Aurkitutako hondakinak inguru horretan bertan ateratako argazkiekin bateratzean, Ixone Sádabak objektuaren modalitate berri bat sortzen du. Nolabait ere, hori da lehen urratsa argazkia gailu gisa pentsatzeko.

Izan ere, Ixone Sádabak iraganean egindako proiektu askotan, forma ematen die fotografiaren erabilera espezifikoei. Arazo edo objektu bakoitzaren arabera, modu desberdinean ulertzen du gailu fotografikoaren funtzionamendua. Obra hauek aurrekaririk hurbilena dira gailu fotografikoa zalantzan jarri eta egokiagoa izango den beste bat pentsatzeko, zentralak proxya edo ordezkua aurkitzeko.

**Lemoizko zentral nuklearraren hondakinen gaineko behatoki-plataforma,
1974-2024**

Mekanotuboaren eraikuntza

1974an, zentrala eraikitzeko prozesu betean, Iberduerok behin-behineko plataforma eraiki zuen. Behatoki hura baliagarri izango zen egiten ari ziren obrak ikuskatzeko. Hala, konpainiako presidente eta Cadaguako kondea zen Pedro de Careaga joaten zen aldiro, behatokiak talaia baten antzeko lana egiten zuen, Lemoizko instalazioetara doan errepidetik hurbil zegoen gain batean kokatuta.

Erakusketan jarrita, eraikuntza -garai bateko behatokia gogora ekarri eta jatorrizkoak zituen dimentsioak berregiten dituen ikuspuntu pribilegiatu bat da, kapital tekniko, finantzario eta politikoen batura.

I. eta II. sekuentziak, 2024

Formatu ertain eta handiko argazkiak (analogikoa eta digitala).

Epson 4K proiektorea

Sekuentziak I

01 2. multzoaren eta hondakinen arteko korridorea (Ekialderantz)
02 Erdiko korridorea 2. multzorantz (Iparraldea)
03 Arbolaren itzala (Iparraldea)
04 Sorgailuen aldeko lorategiak (Ekialdea)
05 Lorategien ikuspegiaren perspektiba (Hego-ekialdea)
06 2. berdea (Ekialdea)
07 1. berdea (Mendebaldea)
08 Sarrerako ikuspegia (Iparraldea)
09 Ikuspegi orokorra diketik (Hego-ekialdea)
10 2. multzoko erreaktorea (Ekialdea)
11 1. multzoko erreaktorea (Hego-ekialdea)
12 Ur-hartunearen sarrerako ikuspegia (Ipar-mendebaldea)
13 Ur-hartuneko tunelaren barrualdea (Ekialde-mendebaldea)
14 Egitura salbuetsiak (Iparraldea)
15 1. Hondakin-eraikinaren pareta (Hegoaldea)
16 1. Hondakin-eraikinaren pareta (Hegoaldea)

Sekuentziak II

01 Urtegiko diptikoa
02 Mendebaldean karrakatutako mendiaren diptikoa
03 Sorgailuen inguruko lorategien diptikoa
04 Dikearen aurreko panpa-lezken diptikoa
05 Dikearen ikuspegi orokorraren diptikoa
06 Kaiaren izkinako xehetasunaren diptikoa
07 Kaiko flyscharen xehetasunaren diptikoa
08 Kaiaren eta ur-hartunearen diptikoa
09 Hustubide-kalaren diptikoa
10 Hustubide-egituraren diptikoa

Museo guztien helburua, berez, aretoen barruan ikusgai egon litekeen guztia -besterik ezean- eskalan eta tamainan gainditzen duen mundu bati lekua egitea da. Lemoiz Alhóndigara eramateko, batez ere, zentralak eta haren eraikinek zuten eskalari eutsi behar zaio. Eskakizun hori ez da soilik arazo tekniko gisa hartu behar. Horrez gain, eskaera politiko gisa ulertu behar da, Lemoizko zentral nuklearraren historia markatu duten iritsi ezintasun eta hermetismoaren ondorenak garbitzeko. .

Bi sekuentzia fotografiko horiek agerian uzten dute zaila dela zentral beraren irudikapen bat 1:1 eskalan gordetzea. Ixone Sádabak onartzen du ariketa zail horrek aukera eman diola konbentzio tekniko batzuetatik nabigatzeko, eta konbentzio horiek, kasurik onenean, erreferentzia-plano batera hurbildu dute irudia 1:1 eskalan fabrikatzeko. Landareak eta hondakinak eskalarik errealistenak gorde beharko lukeen distantzia ideal horretan jartzen dira, eta azkenean eragina dute emaitzan.